

zumaiia

8. zenbakia • 2010eko Apirila

ZU
udalaldizkaria



Zumaiako Udala



Herriko musikaren geroa lantzen

Udalak herriko musika jardueraren inguruko gogoeta sustatu du Musika Patronatua osatzen duten taldeen artean

aurkibidea

2 Etxez etxeko laguntza

3 Inkesta

4 Udala zuzenean

5 Denon herri kontuak

6 Motxian

8 Musika patronatua

10 Odieta

12 Berdintasun plana

14 Zumaiako hitanoa

16 Eraikitzen

17 Alderdien iritzia

20 Agenda

Zumaiatik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu *Zumaiazu* aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 86 50 25 telefonoan.

Argitaratzailea: Zumaiako Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Zumaiako Udala eta EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 4.500 ale
L.G: SS-139-2009

Paper birziklatuan egina 

udal zerbitzua; etxez etxeko laguntza



Etxeko laguntza zerbitzua zerbitzu publiko soziala da, eta beren kasa baliatzeko edo familiaren nukleoari osorik eusteko arazoak dituzten herritarrei zuzenduta dago. Helburua pertsona horien ongizate fisiko, psikiko eta soziala bere onera ekartzea da eta horretara bidean, zerbitzuaren hartzaileak dituen beharren araberako asistentzia eskaintzen da.

Etxeko laguntzaren baitan, Zumaiian ere bi zerbitzu mota eskaintzen dira: etxeko lanetarako laguntza, batetik, eta atentzio pertsonalerako asistentzia, bestetik. Zerbitzu honetaz baliatzeko Branka Gizarte Zerbitzuen egoitzara jo beharko dute interesatuek. Han mendekotasun balorazioa egingo zaie eta beren beharren araberako zerbitzua bideratuko da ondoren.

El Servicio de Ayuda a Domicilio es un servicio público de carácter social que se dirige a familias o personas que tengan dificultades para valerse por sí mismas o mantener el núcleo familiar completo. La asistencia pretende mejorar el bienestar físico, psíquico y social de estas personas mediante un programa individualizado. Para obtener más información sobre este servicio, los interesados deberán acudir a la sede de Servicios Sociales Branka, donde aparte de informarles, les realizarán la valoración según las necesidades del solicitante.



Zer erabilera emango zenioke Moilaberriko tren geltoki zaharrari?



Maria Jose Moreno

Lehendik Zumaian Jubila-tuen Etxea badagoen arren, nik estazio zaharraren erai-kinera pasako nuke egoitza. Eremu egokian dago kokatuta eraikina eta oso aukera onak eskainiko lituzke adinekoentzako. Paseotxoak ematera ateratzeko egokia da eremua eta beheko partean kafetegi bat izango balu, ibilaldiaren ondoren zerbait hartuz geratzeko proposa litzateke.

Trasladaría a este edificio el actual Hogar del Jubilado. El lugar es más idoneo.



Pello Etxabe

Eraikina kirol ekitaldi eta elkarteentzako egokitzea ondo ikusten dut. Gaur egun sakabanatuta daude herriko kirol taldeen egoitzak eta eraikin hau proposa litzateke bai piragua edota baita arraun elkartearen egoitza gisa erabiltzeko. Baina batik bat, handikeriak albo batera utzi eta herriaren beharren arabera erabilpena ematea da niri gustatuko litzaidakeena.

Para mí, lo primordial es acondicionar el edificio según las necesidades del municipio.



Martina Sorrain

Guk hogarra daukagun bezala, gazteen entretenimendurako prestatuko nuke eraikina. Kultura zein aisialdi arloko ekitaldiak egiteko proposa litzateke eraikina eta pertsona nagusiok azpiegiturak dauzkagun bezala, gazteek ere behar dituzte. Elkartu eta hainbat ekitaldi antolatzeke balio dezake eraikinak: antzerkirako, kantaldiak entseatzeko edo beste hamaika ekitalditarako.

Habilitaría el edificio para que los jóvenes pudiesen organizar eventos o actividades.



Juan Mari Aramendi

Anbulatorio zahararen eraikinaren kokagunea kontuan hartuta, itsas kiroletan dabilzan elkarteentzako proposa izango dela iruditzen zait. Arraunlariak, piraguitak eta kirol jardueratan dabilzan elkarteentzako egoitza izan daiteke ambulatorio ohiaren eraikina. Horrekin batera, Arbus-tain Motor Elkartearentzako tokia egokituko balute ere ondo etorriko litzateke.

No estaría mal acondicionar el edificio para actividades deportivas.

udala zuzenean



Udal gobernutik eskerrak eman nahi dizkizuegu aurrekontu herritarren prozesuan parte hartu duzuen herritar eta eragile guztiei. Zorritzarez, ez da posible izango herritarrengandik jaso diren proposamenak aurrekontuetan isla izatea, aurrekontu proposamena onartu ez delako. Hala ere, gure eguneko lanean Udalarai egin zaizkion proposamenak aintzat hartzen saiatuko gara.

Orain, santelmoan parte-hartzeko aukera datorkigu. Eskerrak santelmoak plenoan onartu behar ez diren. Ondo pasa!

El Gobierno municipal quiere mostrar su agradecimiento a todos los zumaiarras que han participado en el proceso participativo sobre los presupuestos. Desgraciadamente, no ha sido posible plasmar todas esas propuestas recibidas en los presupuestos generales para el 2010, ya que el pleno no aprobó la propuesta presentada. No obstante, en nuestro día a día, seguiremos promoviendo y defendiendo las propuestas que presentaron los/as zumaiarras.

Ahora, tenemos la ocasión de participar en los santelmos. Menos mal que el pleno no tiene que dar el visto bueno a las fiestas. Ondo pasa!

Elkarrizketa digitalak zumaia.net-en



Zumaia Udalak elkarrizketa digitalen aroa abiatu nahi du www.zumaia.net bere webgunean. Herritarrek Udaleko gaitan parte-hartzera bultzatzeko beste egitasmo bat izango da honakoa. Izan ere, zumaia guztiei Udalean ordezkaritza duten alderdi politikoetako bozeramaileei galderak egin eta erantzun horiek ikuskatzeko aukera eskainiko zaie.

Elkarrizketa digitaletan ohikoa denez, herritarrek egingo dituzte galderak, eta alderdi politikoetako ordezkariak erantzungo dituzte. Ordu bete iraungo du elkarrizketa bakoitzak eta bi asteko maiztasunaz egingo dira, hau da, elkarrizketa batetik bestera bi asteko tarte egongo da. Hala, Iñaki Agirrezabalaga izango da lehendabiziko elkarrizketatua, santelmoen ondoren. Gero, Andoni Etxaniz alkateordearen txanda izango da, eta haren atzetik etorriko dira gainerako alderdietako bozeramaileak.

Herritarren eta gure herriko ordezkari politikoaren arteko harreman-bide zuzena elikatzeke tresna izango da egitasmoa, eta udal-gaiei lotutako galdera guztiak onartuko dira, baldin eta errespetuan egiten badira.

Elkarrizketatuei galderak egin edota elkarrizketak ikusi ahal izateko www.zumaia.net

[zumaia.net](http://www.zumaia.net) webgunera jo beharko da. Hor aurkitu daiteke egitasmoari buruzko informazio osatuagoa.

El Ayuntamiento de Zumaia quiere emprender una nueva iniciativa de participación ciudadana dentro de su página web www.zumaia.net. Se trata de realizar entrevistas digitales con los portavoces de los partidos políticos que conforman el pleno municipal. De esta forma, los ciudadanos tendrán la opción de formular diferentes preguntas a los responsables políticos y consultar de la misma manera las respuestas que ellos plantean.

El Alcalde Iñaki Agirrezabalaga será el primer entrevistado después de los santelmos y con una periodicidad quincenal se realizarán las demás entrevistas. Para realizar preguntas a los entrevistados o para consultar las entrevistas se tendrá que acudir a la página web municipal [zumaia.net](http://www.zumaia.net). Todos los interesados tendrán aquí más información sobre la iniciativa.

Aurrekontuak luzatu egingo ditu Udalak

Udalbatzak ez zituen ontzat eman 2010erako aurrekontuak

Iragan den martxoaren 12an egindako ezohiko udalbatzarrean 2010erako udal aurrekontuak ez onartzea erabaki zuen udalbatzaren gehiengoak. Udal Gobernuak eta Aralar-Alternatiba koalizioak alde bozkatu zuten arren, aurrekontu proposamenaren aurka agertu ziren EAJ, PSE-EE eta Pilar Etxabe zinegotzia. Horren ondorioz, 2010 ekitaldirako aurrekontu orokorrak ez ziren ontzat eman. Horren aurrean, iazko aurrekontu orokorrak luzatu egingo ditu orain Udalak.

Luzapenaren arabera, urteroko gastuak bere horretan mantenduko dira eta konpromiso-kredituak, hau da, hasita edo iazko aurrekontuetan dagoeneko aurreikusiak eta konprometituak zeuden lanak berez sartuko dira luzatutako aurrekontuetan. Bestelakoa gertatzen da, hala ere, gainerako inbertsioei dagokionean. Izan ere, aurreko ekitaldian amaitu beharreko edo ekitaldi berrian bakarrik erabiliko ziren kredituak edo sarrerak ezin izango dira luzapen horren barruan sartu. Dena dela, luzamenduaren araubidearen arabera, Udalak bestelako mekanismoak erabili ditzake aurtengo ekitaldirako aurreikusita zituen inbertsioak egiteko, alegia, kreditu aldaketan bidez aurrera aterako ditu ekitaldi honetarako aurreikusitako inbertsioak.

Herritarrengandik jasotako proposamenak

2010eko aurrekontu orokorrean lotuta, Zumaiako Udalak bigarren urtez egin du parte-hartzean oinarritutako aurrekontuen prozesua. Udalaren ustez, herritarren parte-hartzearen gaineko oinarri sendoak eraikitzeaz batera, herritarren beharrezkoak identifikatzeko oso baliagarria izan da aurtengo prozesua ere. 93 pertsona inguruk parte hartu dute prozesuan eta guztien artean, 100 proposamen inguru jaso dira.

Udal gobernuaren arabera, oposizioak atzera botatuko aurrekontuen proposamenen "aurreikusiak zeuden proposamen horietako asko". Izan ere, aurten jasotako proposamenen zerrendatik, ia erdiak jada hasiak edo datozen hilabeteetarako egingarritzat joak zituen Udalak, proposamenen %46,94a hain zuzen. Ildo beretik, %27,55ekoa da proposamenen zerrendatik jada eginda dauden eta lehendik egiten diren lanen portzentajea. Eta arrazoi desberdinak tarteko egingo ez direnak, berriz, proposamenen zerrendatik %10,20 aurreikusia zuen Udalak. Gainontzekoen kasuan, azterketa sakonagoa behar dute Udalaren ustez, %11,40koa da multzo hori.

Udalak eskerrak eman nahi dizkie aurrekontuen prozesuan parte hartu

duten guztiei eta nahiz eta aurtengo ekitaldiko aurrekontuetan proposamen horiek txertatzea nekezagoa izango den, hori egin ahal izateko bideak ahalbidetuko ditu udal gobernuak, azken finean, proiektuetan herritarren iritziak eta beharrezkoak presente egoteko bideak lantzea baita helburua.

el Pleno Extraordinario del Ayuntamiento celebrado el pasado 12 de marzo no aprobó el proyecto de presupuestos generales para el año 2010. Aunque el proyecto contó con seis votos a favor (Grupo Mixto 3, EA 1, Aralar-Alternatiba 2), siete votaron en contra (PNV 4, PSE-EE 2, Pilar Etxabe 1). Por lo tanto, y rechazada la propuesta presentada por el equipo de gobierno, el Ayuntamiento prorrogará los presupuestos del año 2009. Así, los importes sobre el gasto general o los créditos de compromiso, es decir, los trabajos comenzados o comprometidos desde el año anterior se incluirán de forma automática en el presupuesto prorrogado. En el caso de las demás inversiones el Gobierno tendrá que utilizar el mecanismo de los cambios de crédito.

En relación a la propuesta presupuestaria para el 2010, el Ayuntamiento llevó a cabo un proceso de participación ciudadana donde cerca de 100 propuestas fueron recibidas. Para el Gobierno municipal, "este proceso ha generado un sólido cimiento en cuanto a la participación ciudadana". Aunque el trabajo será más costoso, el Gobierno asegura que trabajará para incentivar aún más estas vías de participación ciudadana y defender las propuestas recibidas en las mismas.



93 pertsonak parte hartu dute aurrekontu herritarren prozesuan.

Zumaia-Gipuzkoa 2010 proiektua



Zumaiaiko kirol portuan egin zuten aurkezpena.

Zumaia-Gipuzkoa 2010 proiektua aurkeztu zuten iragan den martxoan Zumaiaiko kirol portuan. “Zumaia-Gipuzkoa 2010 proiektua aitzindaria izango da, Euskadin orain artean ez delako egon goi mailan lehiatzeko moduko belaontzirik”, azaldu zuten aurkezpen ekitaldian.

Pablo Tudurik zuzentzen du eskifaia eta dituzten erronken artean, “Erregearen Kopa irabaztea” izango dutela nagusi aipatu zuen. Proiektua Zumaiaiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babestu dute. Eskifaiarekin batera, ekitaldian izan ziren Zumaiaiko alkate Iñaki Agirrezabalaga, Aldundiko Kirol Zuzendari Iñaki Ugarteburu eta Naroa Agirre kirolaria.

El pasado mes de marzo se celebró en el puerto deportivo de Zumaia la presentación del crucero Zumaia-Gipuzkoa 2010, proyecto que el miembro de la tripulación Pablo Tuduri calificó como “pionero” para Gipuzkoa y también para Euskadi: “Nunca antes en Euskadi se diseñó un proyecto para competir en primer nivel dentro de la temporada de regatas de cruceros”. Tanto la Diputación Foral de Gipuzkoa como el Ayuntamiento de Zumaia han sido los patrocinadores del proyecto. Junto con la tripulación del barco, al acto acudieron el alcalde Iñaki Agirrezabalaga, el director general de Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa Iñaki Ugarteburu y la atleta Naroa Agirre.

Bisita Gidatuak abian



Txalupaz eginiko ibilaldia.

Zumaiaiko Turismo Bulegoak abian jarri berri du bisita gidatuen ohiko eskaintza. Martxoan hasi eta abendua bitartean, ia etenik gabe, astebururo eskaintzen dituzte Zumaiaiko itsaslabar eta inguruko natur guneak ikusteko ibilaldiak. Aurtengoan ere ohiko eskaintza zabala eskainiko dute. Horien artean, txalupaz egindako ibilaldiak, trekking-ak, marearteko zabalgunera bidaia, edota irteera geologikoak prestatu dituzte. Baina horiez gain, zetazeoak ikusteko egun guztiko irteerak ere eskainiko dituzte gida aditu baten laguntzarekin. Ildo beretik, Urolako itsasadarrean kayak-ean aritzeko aukera ere eskainiko dute.

Bisita gidatuen informazioa eta egutegia www.flysch.com helbidean edota www.zumaia.net Udalaren webgunean kontsultatu daitezke. Horrez gain, Zumaiaiko Turismo Bulegoan ere bisita gidatuen inguruko informazio zabala eskaini ohi zaie herritarrei zein kanpotik datozenei.

La Oficina de Turismo de Zumaia vuelve a poner en marcha una amplia oferta de visitas guiadas. Desde el pasado mes de marzo hasta diciembre, ofrecerán numerosas actividades todos los fines de semana. La información detallada sobre las visitas guiadas se puede consultar en la dirección www.flysch.com o en la página www.zumaia.net.

Ingurumenaren aldeko ideiak sortzen



Energia Eguneko ekimenak Torreberrin.

Martxoan zehar energia kontsumoa eta aldaketa klimatikoari buruzko kanpaina egin du Zumaiaiko Udaleko Ingurumen sailak Zaramari elkartearekin lankidetzan. Joan den martxoaren 20an ospatu zen Energiaren Eguna eta jende ugari hurbildu zen Torreberri eraikinera tailer eta ekimen desberdinetan parte-hartzera. Eguna borobila atera zen; energia berriztagarrien inguruko tailerrak izan ziren, energia aurrezteko jokoak egin zituzten, produktu ekologikoekin egindako pintxoak dastatu, eta iluntze partean kalejira egin zuten, berrerabilitako materialekin sortutako bizikleta musikalarekin.

Energiaren Egunaren aurretik, ordea, herriko adin-talde desberdinen artean tailerrak egin zituzten martxoaren hasieran eta tailer horietan landutakoa ikusgai jarri zuten Energiaren Egunean. Herriko haur, nerabe, gazte, heldu zein nagusiek energiaren kontsumoa eta aldaketa klimatikoaren gaia landu eta ingurumenaren aldeko ideiak sortzen parte hartu dute.

El pasado mes de marzo el debate sobre el consumo de energía y el cambio climático estuvo presente en Zumaia. El departamento de Medioambiente del Ayuntamiento, en colaboración con la asociación Zaramari, llevó a cabo una campaña cuyo objetivo ha sido concienciar a la gente sobre el consumo de energía y el cambio climático producido por el uso excesivo de la misma. Dentro de la campaña, el 20 de marzo celebraron el Día sobre la Energía.

Herriko txokoak argazkitan



Iazko lehiaketako argazki irabazlea.

Zumaiaiko Udaleko Kultura Sailak, Distira Argazki Elkartearekin lankidetzan, Zumaiaiko XXII. Argazki Lehiaketa antolatu berri du. Edozein zaletuk hartu dezake parte eta aurtengo ekitaldirako aukeratu duten gaia: *hirikoa* izango da. Argazkilari bakoitzak gehienez hiru lan aurkez ditzake eta ohi bezala, argazkiak paperean aurkeztu beharko dira. Lanak ondorengo helbidera bidali beharko dira: Foronda Kultur Etxea. 20750 Zumaia.

Lehen hiru lan onenek sariak jasoko dituzte. Aurrenekoak 500 euro eta garaikurra eskuratuko ditu; bigarrenak, 300 euro eta, hirugarrenak, berriz, 200 euroko txartela jasoko du. Lan sarituak Zumaiaiko Udalaren eskuetan geratuko dira eta lehiaketara aurkeztu diren argazki guztiekin erakusketa egingo dute ondoren Kultur Etxean. Lehiaketari buruzko informazio gehiago Foronda Kultur Etxean edota www.zumaia.net Udalaren webgunean eskuratu daiteke.

La asociación de fotógrafos Distira y el departamento de Cultura del Ayuntamiento ya tienen organizada la XXII. Edición del Concurso Fotográfico de Zumaia. El certamen está dirigido a todo aficionado que lo desee y el tema para esta ocasión será: 'urbano'.

Musika Patronatua indartzeko beharra

Udalak herriko musika jardueraren inguruko gogoeta sustatu du Musika Patronatua osatzen duten taldeen artean.

El Ayuntamiento ha promovido un proceso de reflexión entre los componentes que conforman el Patronato de Música.

badira ia hogeita urte Zumaia Musika Eskola sortu zela. Herriko zenbait eragileren lana bateratu eta koordinatzeko asmotan sortu zen 90. hamarkada hasieran Musika Eskola eta ordutik, herritarrei hainbat zerbitzu eskaintzeko lanetan aritu izan da eskola. Orain, Musika Eskolaren kudeaketarako kontratazioa lehiaketara ateratzea tokatu den honetan, Udalak oro har herrian musikagintzaren inguruan egiten den lanaren eta baliabideen inguruko gogoeta dinamika bat aurrera eramane du herriko norbanako eta eragileen artean.

“Urteak garamatzen Bandako kideok behintzat Musika Patronatuari buruzko eztabaida sakon baten zain”.

Musika Patronatua da gaur egun musikaren arloan lanean diharduten herriko eragile desberdinak biltzen dituen organoa. Musika Patronatua duela hamabost bat urte sortu zen eta honako kideak hartzen dute parte bertan: Musika Eskola, Udal Musika Banda, Txistulari taldea, Beheko plaza, San Pedro eta San Pedro txiki abesbatzak eta Udaleko Kultura Batzordeko ordezkariak. Hala, hausnarketarako bidea ireki du Udalak herriko eragileen artean, eta aurrera begira, Zumaia Musika Eskolaren ibilbidea definitzeko helburuarekin.

Guztiek galdetu zaie euren iritzia, bai Musika Eskolaren inguruan eta baita

Musika Patronatuari buruz ere, eta jasotako irakurketen arabera, hainbatek komunean dituzte zenbait gogoeta. Zumaia Udal Musika Bandako lehendakaria den Ibon Manterolak azaldu duenez, “pozez hartu genuen gogoetarako gonbidapena. Patronatuan erabaki eta iritzi konkretuak zehaztu ohi ditugu, baina urteak garamatzen Musika Bandako kideok behintzat Musika Eskolari eta oro har, Musika Patronatuari buruzko eztabaida sakon baten zain”. Musika Bandako kideen arabera, “ibilbide honetan guztian, gauza asko ondo egin ditu Musika Eskolak, baina baditu hobetu beharreko elementuak ere. Horien artean, eskolaren helburuak Patronatuko beste eragileekin batera zehaztea adibidez”. Izan ere, Musika Eskolak Musika Patronatuaren beharrei erantzun behar diela azpimarratzen dute: “Gure kasuan, behintzat nabarmena da lotura. Gure harrobia hortik abiatzen da, Musika Eskolatik, eta horri begira, beharrezkoa iruditzen zaigu elkarlan zuzena mantentzea. Eta gurekin bezala, baita abesbatzen edota txistularien kasuan ere”. Elkarlan horretarako gunea, ordea, badago, Musika Patronatua, eta hori da “indartu” behar dena Bandako kideen ustez.

Taldeen arteko lankidetzak, aberasgarri

San Pedro abesbatzak ere Musika Bandarekin bat egiten du herriko



talde desberdinen arteko elkarlana sustatzearren proposamenarekin. Beraien arabera, “Patronatua osatzen dugun taldeon arteko harremanak oso aberasgarriak direlakoan gaude, talde bakoitzak batak besteari eta herriari eskaini diezaikeenagatik”. Musika eta Dantza Eskolaren inguruan, berriz, abesbatzak ere egin du proposamen zehatza. Kudeaketari dagokionez, egokiena oposaketa bidez udal funtzionarioa kontratatzea izango litzakeenean daude, batez ere arlo ekonomikoaz arduratuko litzakeena. Eskolako plan pedagogikorako proposamena egiterako orduan, berriz, Donostiako Musika Eskola hartu dute eredu gisa eta lau maila bereizi dituzte ikasketa prozesurako. Azpimarratzen dutenez, “herriak eskatutako berrikuntza, premia, proposamen eta eskakizun berriei egokitutako musika eta dantza eskola izan beharko luke”.

San Pedro Txiki abesbatzako kideen ustez, Musika Eskolaren helburu izan beharko luke musikarekin lotuta ekintza guztien (instrumentu, dantza, ahotsa...) praktika eta gozamenerako bideak eskaintzea. Baita euren formazioan gehiago trebatzea nahi duten ikasleei ere horretarako baliabideak eskaintzea, Musika Eskolak ondoren zentroetarako harrobia direla kontuan hartuta. Beraien ustez, guraso elkarteak ere partaidetza nabarmena beharko luke eduki Musika Eskolaren zuzendaritzan.



Txistulari Taldeko Joseba Iñaki Egañak Musika Eskolak eta Musika Patronatuak, oro har, ondo funtzionatzen dutela uste duela adierazi du. Euren taldeari dagokionez, adibidez, atzematen dute ondorengo falta, baina hori ez du uste eskola hobetu beharrarengatik denik, baizik eta txistua ikastera gaur egun gazteak animatzen ez direlako dela gaineratzen du.

“Patronatuan herriko eragile desberdinak egotea osasungarria da herriko musikagintzarentzako”.

Beheko Plaza abesbatzak, bere aldetik, orokorrean abesbatzen arloa ondo antolatuta eta prestatuta dagoela uste du. Hori bai, kantu solista eta kantu korala lantzea ezinbestekoak direla iruditzen

zaie. Horrekin batera, egokia dela uste dute San Pedro abesbatzak Patronatuan parte hartzen duten hiru koru taldeen inguruan egiten duen banaketa adinari dagokionez.

Beharrei erantzuteko proposamenak Udaletik

Elrakurketa horien guztiak aztertu ondoren, eta beste herri batzuetako Musika Eskolen ereduak ikusi eta gero, Udalak iritzi eta proposamen horiei erantzun ahal izateko bideak irekitzen ari da orain. Iñaki Agirrezabalaga Zumaiaiko alkateak azaldu duenez, “herriko musika talde desberdinak patronatuan integratuta egotea herriko musikagintzarentzako oso osasungarria dela uste dugu. Gogoeta honetatik jasotakoaren arabera, Patronatua dinamizatzeko zailtasunak izan dira, eta

hori zuzentzeko proposamenak lantzen ari gara orain”.

Musika Eskolaren kudeaketarako erakunde kontratatzeke lehiaketa berria, berriz, aurki abiatuko du Udalak. Baldintzetan, herriko musika arloko gogoeta horretatik jasotako ekarpenak atxikiko ditu Udalak eta Patronatuan jarraipen eta parte-hartze handiagoa bultzatzeko printzipioak zehaztuko dira. Ildo beretik, oraingoz, ez da baztertzen gurasoek nolabaiteko parte-hartzea edo presentzia izatea kudeaketa berri honetan.

Etorkizunera begira jarri da une batez Zumaiaiko musikagintza, eta aurrera begira eman beharreko urratsak aurreikusteko abagunea egin dute. Orain, baliabideak adostu eta urratsak ematen hasia izango da helburua, beti ere elkarlanean.

En su trayectoria de cerca de veinte años, la Escuela de Música de Zumaia ha ofrecido numerosos estudios y actividades a la ciudadanía de Zumaia. Ahora, aprovechando el proceso acordado por la ley para la contratación de la gerencia de la escuela, el Ayuntamiento ha promovido un proceso de reflexión entre los componentes que conforman el Patronato de Música de Zumaia.

El Patronato es hoy día el órgano en el cual se reúnen varias asociaciones musicales de la localidad, como es el caso de la Banda de Música, la Escuela de Música, el grupo de txistularis, y los coros San Pedro, San Pedro Txiki y Beheko Plaza. Mediante este procedimiento para la reflexión, las agrupaciones se han puesto a mirar de cara al futuro, y han diagnosticado los objetivos o mejoras que deberían plantear tanto la Escuela de Música como el Patronato.

En base a las opiniones y reflexiones recibidas por parte de los grupos, el Ayuntamiento también comparte la filosofía de reforzar este órgano tan fundamental que es el Patronato de Música, y en ese sentido, está concretando diferentes medios para coordinar o reforzar esa función que deberá seguir el Patronato. Porque el trabajo en equipo será fundamental para todos/as.

Abian dira Odietako etxebizitzaren lanak



Odietako etxebizitzaren altzaera.

Zumaia Lantzenek sustatuta abian dira Odieta auzoko etxebizitzaren lanak. Guztira, 26 etxebizitza eraikiko dira; 13 lehengo etxeetako bizilagunentzako izango dira, eta beste 13ak salmentan jarriko ditu Zumaia Lantzenek.



Martxoaren erdialdera abiatu ziren lanak eta egin duten lehendabiziko

zeregina, Eusebio Gurrutxaga plaza egokitzea izan da. Zumaia Lantzeneko teknikariek azaldu dutenez, “plazan zenbait egokitze lan egin dira, aste santu alderako herritarrek eremu hau erabilgarri izan dezaten”. Izan ere, behin erauste eta bolumen handiko lanak eginak daudela, atzealdetik izango dute aurrerantzean kamioiek sarbidea etxebizitzaren eraikuntza lanei ekiteko. Horrek ahalbidetu du berriro ere Beheko plaza herritarrentzako modu egokiagoan erabilgarri egotea datozen ekitaldietarako: Aste Santuak, santelmoak...

“Isolamendu termikoa eta akustikoa hobetu egingo dira eta etxebizitzaren distribuzioan ere aldaketak izango dira”.

Hasierako proiektuetan legez egin beharreko zenbait egokitzapenekin batera, etxebizitzaren ezaugarrietan zenbait hobekuntza aurreikusi dira. Isolamendu termikoa eta akustikoa, adibidez, hobe-

Zumaia Lantzenek berriro hartzen ditu lanak Odietan eta hasitzen da etxebizitzaren eraikuntza. Guztira, 26 etxebizitza eraikiko dira, 13 errentak hartzeko eta 13 salmentan jarriko dituzte. Lanak martxoaren erdialdean hasi ziren.

Las obras comenzaron a mediados de marzo y lo primero que han realizado ha sido habilitar la plaza para el uso público. Ahora, los trabajos de edificación se realizarán con un nuevo planteamiento ya que los camiones accederán a la zona desde la parte trasera del barrio: “Dado que las demoliciones y el trabajo más pesado ya está realizado, los camiones llegarán desde la zona trasera del barrio, disminuyendo de esta manera las molestias que la obra podría generar a los residentes”. parte de la mejora en cuanto



tu egingo dira eta bizilagunen kontsumo energetikoa justuagoa izango da ezarriko diren eguzki-plakei esker. Etxebizitzaren distribuzioan ere zenbait aldaketak emango dira; balkoiak izango dituzte etxebizitzek eta espazioaren banaketa ohiko eskarierara egokituko da.

Egokitzapenak eginda

Joan den urteko urritik geldituta egon dira etxebizitzak hauek egiteko lanak. Iñaki Agirrezabalaga Zumaia alkateak eta Andoni Etxaniz Udaleko Hirigintza zinegotziak azaldu dutenez, proiektuari “zenbait egokitzapen” egin zaizkio: “Alde batetik, eta Zumaia

Lantzenen Administrazio Kontseiluak hala erabakita, lehiaketa publiko bidez esleitu zen 2009an obra zuzendaritza. Orduetik, proiektuan hainbat egokitzapen egiten aritu da zuzendaritza talde berria. Nagusiena Eraikuntzaren Kode Teknikoetarako egokitzapena”. Zumaia Lantzeneko arduradunek azaldu dutenez, kode berria da eta eraikitzeko irizpide eta baldintza berriak eskatzen ditu, horien artean eguzki-plaken instalazioa.

Orain, lizentzia eta egokitzapen guztiak bideratuta, eraikitzaileak 2011ko uztailerako etxebizitzak amaituta egongo direla agindu du.

a parte de la disposición de la obra, el proyecto de las viviendas tendrá ciertas mejoras en cuanto a la habitabilidad y la distribución interna. Durante este tiempo han estado adecuando el proyecto a los nuevos códigos técnicos, que entre otras características incluye la instalación en el inmueble de placas solares.

Otra de las principales novedades del proyecto es el incremento del número de viviendas a construir, ya que se contempla la eliminación de varios dúplex. Según ha señalado el concejal de Urbanismo Andoni Etxaniz, “con las reformas, también se incluirá la instalación de un segundo servicio en algunas viviendas y la colocación de balcones en la fachada.

Junto con el proyecto de edificación, también se reformará el frontón que se encuentra en el barrio. Según las previsiones, el frontón tendrá una cubierta y llegará a una longitud aproximada de siete cuadros.

En base a los plazos previstos, las obras estarán finalizadas para julio de 2011, así lo ha fijado el constructor.

Zumaiako Emakume eta Gizonen

I. Berdintasun Plana

Helburuak eta ekintza zehatzak finkatu dituzte



Alkatea eta Itsasne Loroño Fondo Formación-eko teknikaria.

Emakume eta Gizonen artean berdintasun egoerak lortzeari begira urrats berri bat eman berri du Zumaiako Udalak. Joan den astean aurkeztu zuen Udalak Fondo Formación Euskadi erakundearen eskutik garatuta Zumaiako Emakume eta Gizonen I. Berdintasun Plana. Hurrengo urteetan ezberdintasunak murriztu eta esparru guztietan, emakume eta gizonen partaidetza orekatua bultzatzea izango du helburu planak eta hainbat arlotan jarraitu beharreko ibilbidea zehaztuko du, arlo bakoitzeko helburuak eta ekintzak zehaztuz.

luz egindako Berdintasun Diagnostikoan, hainbat esparrutan, oraindik ere, emakume eta gizonen artean ezberdintasun nabariak daudela aztertu eta gero, Berdintasun Planak markatuko du hurrengo urteetan Udalak ezberdintasun hauek leuntzeko jarraitu beharreko ibilbidea.

“Plana zazpi arlo desberdinetan egituratuta dago: Udalak; Gizarteratzea; Kultura; Kirola; Hirigintza, Ingurumena eta Garraioa; Hezkuntza; Osasuna eta Lana-Enplegua”.

Berdintasun Plana zazpi arlo desberdinetan egituratuta dago, eta arlo bakoitzerako helburu eta ekintza desberdinak diseinatu dira. Guztira, 44 helburu zehatz finkatu dira eta horiek lortzeko 94 ekintza garatuko dira. Horien artean daude, batzuk aipatzearen, Zumaiako emakumeen ahalduzko bultzatzeko Jabetza tailerrak egitea, Udalak zerbitzuak azpikontratatzeko dituen baldintza-pleguetan enpresak genero eskarmentua/formazioa izatea baloratzea, edota emakumearen aurkako indarkeriari aurre egiteko tokiko protokoloa diseinatu eta ezartzea. Arloak, berriz honakoak liratezke: Udalak; Gizarteratzea; Kultura; Kirola; Hirigintza, Ingurumena eta Garraioa; Hezkuntza; Osasuna eta Lana-Enplegua.

Plana bultzatu eta koordinatzeko, berriz, beharrezkoa ikusi dute ondorengo egiturak sortzea eta finkatzea: berdintasunerako zerbitzua; sailen arteko egitura politikoa, ardura politikoa eta erabaki estrategikoak hartzeko; sailen arteko egitura teknikoa, Udaleko arlo edo sail desberdinei jarraipena emateko; eta azkenik, Berdintasun Foroa, Berdintasun Zerbitzuko teknikariaz gain, emakume taldeetako ordezkariak zein berdintasun helburutzat duten beste-lako elkarrekin ordezkariarekin osatua.

Irakozkunak egiteko tartea

Berdintasun plana egiterakoan eta herritarren parte-hartze zabala bermatzeko helburuarekin, hainbat ekintza egin dira azken hilabeteetan, hala nola, arlo desberdinetan bideratu beharreko ekimenak definitzeko eta zehazteko 6 lan-talde egin ziren urria eta azaro bitartean. Horrez gain, iragan den urtarrean Berdintasun Planaren lehen zirriborroa herritarrekin konpartitzeko Gizarte Foroa egin zen. Orduan herritarrengandik jasotako proposamenak atxiki zaizkio Planari eta orain irakozkunak egiteko bigarren txanda bat irekiko da. Udalaren www.zumaia.net webgunean zintzilikatu da Berdintasun Plana edozeinek kontsultatu dezan eta apirilaren 30era bitarteaneginahalkodiraproposamenak. Horretarako ondorengo helbidera idatzi beharko dute interesatuek: komunikazioa@zumaiaoudala.net

El Ayuntamiento de Zumaiak acaba de dar un nuevo paso en su propósito de reducir las desigualdades existentes entre mujeres y hombres de Zumaiak. Se trata del I. Plan de Igualdad de Mujeres y Hombres de Zumaiak elaborado por la fundación Fondo Formación Euskadi.

El nuevo plan está dividido en siete secciones y cada una de ellas cuenta con sus objetivos y acciones. En total, se han diseñado 44 objetivos específicos y se promoverán 94 acciones concretas para llegar a completar los objetivos pactados. Entre los propósitos caben destacar los talleres para incentivar las facultades de las mujeres o la creación de un protocolo local para hacer frente a los casos de violencia contra las mujeres.

Seinale digitala iritsi da

Seinale analogikoa atzean utzi eta digitalerako estaldura sarea egokitzeko lanak azken fasean sartuta daude. Hilabete hauetan egindako neurketen arabera, herrigunearen ia osoak badu jada estaldura.

Itelazpi Telekomunikazioen Zerbitzu Publikoa ari da Zumaia eta inguruko herrietan azkeneko egokitzapenak egiten seinale digitalaren estaldura sarea modu eraginkorrean toki guztietan bermatu ahal izateko. 2003an sortu zuen Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez Itelazpi erakundea eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri guztietan seinale digitalaren estaldura bermatzeko akordioa sinatuta dauka Eudel, Eusko Jaurlaritza, eta Foru Aldundiarekin.

Urtarrilean eta otsailean aritu dira erakunde horretakoak Zumaian hainbat neurketa egiten; gero horien arabera, estaldura modu eraginkorrean bideratu ahal izateko. Neurketa horien arabera, herrigunearen ia osoak badu jada estaldura, baina arazoak daude herriko zenbait puntutan. Arazo horiek konpontzeko alternatibak bilatu dituzte dagoeneko Udalak eta Itelazpi erakundeak eta neurriak ere hartu dira arazoak zituzten hainbat gunetan, Narruondon esaterako.

Seinale digitalaren emisioa hasita dagoenez norbere etxean probaketak egitea komenigarria dela azaldu dute. Seinale digitala behar bezala iristen ez zaien bizilagunei Udalean abisua emateko eskatu zaie.

Los trabajos de adecuación a la Televisión Digital Terrestre (TDT), están inmersos en su última fase. Según se informa, casi toda la zona del núcleo urbano dispone de cobertura, pero parece ser que hay algunos problemas en ciertos puntos de la localidad. El Ayuntamiento y el Servicio Público de Telecomunicaciones Itelazpi ya tienen concretadas las alternativas que llevarán a cabo, incluso algunas de ellas están ya ejecutadas, como es el caso de Narruondo.

Si el problema persiste, se pide a los ciudadanos que lo notifiquen en el Ayuntamiento.

Egin festa beldurrik gabe,
baina errespetatu bizilagunen atsedena ere!

Ondo pasa santelmoak!!!



Zumaia Udala



Zumaiako hitanoa galdu ez dadin

Zumaiako Udalak euskararen ahozotasuna eta bereziki hitanoa hedatzeko lanean proiektu berri bat abiatu du Mintzola fundazioarekin elkarlanean. Joan den martxoaren 4an aurkeztu zuten egitasmoa eta hizkuntzaren aldaera hau sustatzeko

akordioa sinatu zuen Udalak eta Mintzola fundazioak. Horren arabera, Zumaiako ikastetxeetan, LH 5. eta 6. mailan, eta DBHko 1. eta 2. mailetan hitanoaren inguruko unitate didaktikoak landuko dituzte. Nerea Epelde Udaleko Euskara zinegotziak proiektuari ekiteko

“ilusioz” daudela aipatu du, “hainbat eragileren artean aspalditxotik abiatu nahian zebilen proiektuak azkenean forma hartu duelako”. Proiektuaren bideoa gune hauetan ikus daiteke: tokiko.tv/bideoak/hitanoa eta baleike.com.



Nerea Epelde
Euskara zinegotzia

Nondik abiatu da proiektua?

Zumaiako hitanoaren inguruan aspalditxotik jaso izan da Udalean herritarren partetik kezka. Gure ustez, mantendu eta suspertu beharrekoa da hizkuntzaren aldaera hau eta horretara bidean, hainbat lanketa egin izan dira. Horien artean, Xabier Azkuek Zumaiako hitanoari buruzko liburuxka kaleratu zuen 2000. urtean, baina harrezkero hitanoaren erabilera gazteen artean sustatzeko beharra azpimarratu izan da. Dinamizazio lan hori egiteko hasieran beka bat abian jarri nahi izan zuen Udalak, azkenean euskararen ahozotasuna lantzeko sortu berri den Mintzola fundazioarekin topo egin dugun arte.

Erronka ez da makala, ilusioz al zaudete?

Bai, ilusio handiarekin gaude proiektu

berri hau abiatzeko. Azken batean, aspalditik herriko hainbat eragilek eta norbanakok bultzatu nahi zuten egitasmoa da eta abiatzea kostatu den arren, azkenean forma hartu du.

Uste okerrak ei daude Zumaian hitanoaren inguruan.

Belaunaldien arteko transmisioak ez du egin bere bidea hitanoari dagokionez Zumaian behintzat. Gure amak, adibidez, hitanoz hitz egiten du bere ingurukoekin baina sekula ez da hika mintzatu seme-alabokin. Gure nahia ez da orain edozeinek edozeinekin hika hitz egitea, hitanoak bere erregistroak eta “arauak” badituelako, baina bai gure ondorengoei Zumaiako hitanoa transmititzea eta erabiltzera bultzatzea. Eta gazteen artean landu nahi dugu hori batez ere.

Eta hori gutxi balitz, hitz egiten denean oker erabiltzen omen da askotan.

Gazteek gaizki erabiltzen dute, egia esateko. Mutilen gisan hitz egiten zaie kasu askotan neskei, adibidez, eta hori zuzendu beharra dago.

Lan honetan, Mintzola fundazioaren babesa eta elkarlana garrantzitsuak izango dira ezta?

Mintzolak egitasmoari bere babesa eta ekarpena egitea garrantzitsua da guretzat. Azken batean, aspalditik genbiltzan dinamika hau abiatu nahian, baina bultzada eman eta dinamizatuko zuen norbanako edo eragileren baten zain geunden. Azkenean, proiektua Mintzolarekin jarduera esparruarekin guztiz bat zetorrela ikusi genuen eta elkarlana

bide horretan abiatu genuen. Hitzarmena sinatu berri dugu Mintzola fundaziak eta Udalak eta herriko ikastetxeetan lantzeko unitate didaktikoak lantzearekin abiatuko dugu egitasmoa. Herriko ikastetxeetako irakasleekin lankidetzan ariko gara eta ildo beretik, eurekin ere prestakuntza saioak landuko ditugu, lehenengo beraiek trebatzeko.

Oraingoz, ikastetxeak izango dituzue bidelagun. Eta gero, norantz jarraituko du bideak?

Hitanoa gainontzeko esparruetara zabaltzeko asmoa badaukagu aurrera begira eta herritarren artean interes handia dago horretara bidean. Badakigu hitanoaren erabilera ez dela ikastetxeen

kontua bakarrik, eremu ez formalekoa baita eremu hori, baina ikastetxeetan 'aliatu' onak ditugu, eta hori aprobetxatu beharrean gaude. Aurrera begira, jarraituko dugu Zumaiako hizkeraren eta hitanoaren erabilera zabaltzeko lanean, baina hori zehazteke dago oraindik. Oraingoz, ikastetxeekin hasiko dugu lanketa.

Merkataritzan euskararen erabilera sustatuz

Zumaiako Udaleko Euskara Zerbitzuak hiru egitasmo berri abiatu ditu, Elhuyar Aholkularitzaren laguntzarekin, merkataritzan euskararen presentzia eta erabilera bultzatzeko. Aurten garatuko dira ekimenak, baina azaldu dutenez, "aurrera begirako urratsak finkatzeko baliagarria" izango da lanketa hau.

Hizkuntza jokaerak ezagutzeko inkesta

Alde batetik, 'Euskaraz kontsumitzen duzu?' inkesta egin dute zumaiarrek erosketak egiterakoan dituzten hizkuntza-jarrerak jasotzeko. Ekimenak bezero euskaldunak sentsibilizatu eta hizkuntza-jarreretan eragitea du helburu, "merkataritzan eta ostalaritzan euskalduntzeko erabakigarria delako bezeroen jarrera". Ildo horretatik, inkesta betetzerakoan nork bere hizkuntza-jarrez hausnartzea lortu nahi izan dute ekimenaren sustatzaileek, batetik, eta ahalik eta erantzun gehien bilduta, zumaiarrok jokabidea ezagutzea izan dute xede, bestetik.

Euskararen Aholku Batzordearekin elkarlanean landu da egitasmoa, eta hurrengo pausoa izango da merkatarien hizkuntza-jarrerak ezagutzea eta horien inguruan hausnarketa egitera bultzatzea. Horretarako, maiatzean beste inkesta bat zabalduko da.

Euskararen mikroplana

Inkestarekin batera, bestelako egitasmo bat abian jarriko du Euskara Zerbitzuak



herriko establezimendu batean. Elkarrekin hala adostuta, euskararen egoera aztertzeko mikroplana abiatuko dute Errota okindegi-kafetegietan. "Zumaiarrek egunero erabiltzen ditugun lekuak izaki, mikroplanak herritar askorengan izango luke eragina", azaldu du Lur Etxeberria Elhuyar Aholkularitzako teknikariak. "Lehenik eta behin, Errotako arlo guztietan euskararen egoera zein den aztertuko dugu, asko baitira establezimendu batean hobetu daitezkeen egoerak; eta azterketa horretan oinarrituta, hobetu beharrekoak eta lortu beharreko helburuak zehaztuko ditugu". Ondoren, helburu horiek lortzeko ekintzak jarriko dituzte abian eta lan horri segimendua egingo zaio.

Ekimenarekin bi helburu lortu nahi dituzte: "Errotan bertan euskararen presentzia eta erabilera handitzeaz gain, ekimen honen bigarren helburua, bide hau gainerako establezimenduentzat ere

eredu eta erreferentzia bihurtzea da". Errotarekin egindako lanak beste establezimenduekin aurrerantzean egingo den lanaren oinarriak finkatu ditzake, eta horregatik, dei egin diete mikroplana egin nahiko luketen beste establezimenduei Euskara Zerbitzura jo dezaten.

Euskarazko kartelak janari-dendetan

Hirugarren egitasmo bat ere bada, ordea, herriko janari-dendei euskarazko kartelak eskaintzen ari zaizkielako produktuak errazago identifikatzeko. Okindegiak, harategiak, arrandegiak eta fruta-dendak hartu dira eta 2010ean arlo bakoitzerako kartel ikusgarriak banatu dira establezimenduetan. Kartel horien laguntzarekin, arrain motak errazago bereiziko dituzte bezeroek, abereen atalak, era bateko eta besteko ogiak, fruten izenak euskaraz... Okindegietan dagoeneko banatu dituzte kartelak.

Sarbide berria Herri Eskolan



Alai auzotik egokitu da sarbidea.

aita Mariko Herri Eskolan sarbide berri bat egokitu du Udalak. Andoni Etxaniz Hirigintza zinegotziak azaldu duenez, “ikastetxean aterpea egokitzeko lanen jarraipena izan da exekuzio hau eta irisgarritasun irizpideak kontuan hartuta egin da esku-hartzea”.

Alai auzotik egokitu zaio ikastetxeari sarbide berria eta komun publikoaren alboan dagoen aparkalekutik lotura izango dute guraso zein hurrek ikastetxera sartzeko. Horrekin batera, Alai auzora eta Patxita Etxezarreta kalera zuzenean ateratzeko aukera izango dute ibilgailuek aurrerantzean, eta ez orain arte bezala, Aita Mari auzotik barrena. Exekuzioaren baitan, ikastetxera sartzeko malda egokitu egin da irisgarritasun irizpideetara eta zoladura berria jarri da lurzoruan.

Hirigintza zinegotziak gogora ekarri duenez, “joan den urteko azaroan bukatu zituzten aterpedun jolasgunea egiteko lanak Aita Mariko Herri Eskolan, eta egitura metalikodun aterpea eraikitzeaz gain, patioa asfaltatu eta lehengo jolasgunea eraberritu ziren. Exekuzio horri esker, 550 m²-ko patio estalia dute hurrek jolaserako”.

Eremua herritarrei irekita

Udal arduradunek azaldu dutenez, aterpedun jolas eremuari “erabilera irekiagoa” ematea izango da orain Udalaren asmoa: “Gune estalien beharra herritarren artean askotan errepikatu den eskaera bat da, eta hori dela eta, jolastoki estalirako sarbidea egokitu eta gero, erabilera irekiagoa emango zaio eremu honi, asteburu eta jai egunetan batez ere”.

el Ayuntamiento ha acondicionado un nuevo acceso en la Herri Eskola de Aita Mari. La nueva entrada se encuentra en el barrio Alai y posibilita un acceso seguro y accesible para los niños y padres y madres.

Urbanizazio eta eraikitze prozesuak abian



Txomin Agirre kaiko proiektua.

Zumaiaiko Udalak abian ditu dagoeneko 2010eko ekitaldian abiatuko dituen hainbat eraikitze eta urbanizazio proiektuen prozedurak. Ireki da Txomin Agirre eta Mendaro Marinelako urbanizazio proiektua egiteko obra kontratuaren esleipen prozedura, eta frontoiaren proiektuaren idazketa abiatu ahal izateko plegu teknikoak ere prestatuta ditu Udalak.

Txomin Agirre eta Mendaro Marinelako eremuari dagokionean abian da proiektua egiteko obra kontratuaren esleipen prozedura. Jardunbide negoziatua eta publizitate bidezkoa izango da esleipenerako erabiliko den prozedura eta urgentziaz egingo da adjudikazioa, obra urtea bukatu aurretik amaitu behar delako. Baldintza Tekniko eta Administratiboak Hirigintzako bulegoetan edota www.zumaia.net-en kontratugilearen profilean kontsultatu daitezke. Interesatuak apirilaren 15era arteko epea izango dute proposamenak aurkezteko eta gehienez 20 egun geroago egingo da behin-behineko esleipena.

Frontoiaren proiekturako pleguak

Frontoiaren proiektuari dagokionean, berri, proiektuaren idazketa abian jartzeko plegu teknikoak prestatuta ditu dagoeneko Udalak. Udalbatzak 2010eko udal

aurrekontu orokorren proposamena baztertu ondoren, dagokion kreditu aldaketa egin ostean jarriko da martxan frontoiaren proiektuaren idazketarako prozesua.

mediante Decreto de Alcaldía se han aprobado los Pliegos para la adjudicación del contrato de obras para la reforma de la urbanización Txomin Agirre Kaia y Mendaro Marinela. La adjudicación se basará en procedimiento negociado con publicidad y tramitación urgente y el plazo para presentar las propuestas finalizará el 15 de abril. Las bases se pueden consultar en la página www.zumaia.net. El Ayuntamiento también tiene fijadas las prescripciones técnicas para iniciar la redacción del proyecto del frontón.



Otsaileko Plenoko puntu nagusia 2010erako Udal Aurrekontu Proposamena izan zen. Gobernuak aurkeztu (ezker abertzaleko hiru zinegotzi eta EA-ko alkatea), Aralar eta Alternatibako bi zinegotzien adostasunarekin eta Udalbatzak atzera boto zituen. Ezezkoa jaso zuen Udal Aurrekontuak. Aurrekontua da edozein udal gobernuak, edozein Alkatek duen tresna garrantzikoena. Aurrekontua ezin atera izatea, edozein gobernuren ahulezia ezaugarri handiena. EAJ-ko udal taldekideok ezezkoa eman genion. Ez gobernu gailentzeko asmoa helburu genuelako, bestelakorik agertzen saiatuko diren arren.

Aurrekontu proposamenak, beste behin ere, hirugarrenengo aldiz jada, ez hanka ez buru zuelako baizik.

700.000 eurotako "aurrezki negatiboa" planteatzen zuelako; inon ez bezala bizi dugun krisi egoera honetan, langile eta zerbitzu gastuak eta dirulaguntzak jeitsi beharrean, 5, 6, 7 puntutan igotzea planteatzen zutelako, EUDELen ezinbesteko irizpidea, gastua gutxienez %10ean jeistea izanik.

Baina ez. Zumaiako udal agintariak berean jarraitzen dute nonbait. Ez daukatena gastatzen. Herriko dirukontuak desitxuratuta eta inolako iraunkortasunik gabe uzten.

Gastuak gora, inbertsioak behera.

Eskerrak oraindik ere ez direla gai izan orain hiru urte jasotako aurrezkiak guztiz gastatzeko. Baina itsulapikoa hustutzeko zorian daude, eta nola ordainduko dira hemendik aurrera azken bi urtetan gastuetan kontsolidatutako %50eko igoerak? Nekez. Bestalde Zumaiako Lantzen bitartez proposatzen dituztenak neurri handi batetan ez dira beteko. Eta Udalak bere elkarteari emandako 2.500.000 eurotako mailegua berreskuratzen kostatuko zaio.

Mila dira atzera botatuko aurrekontu horiei ezetza emateko arrazoiak. Edozeinerakundetako arduradunek aintzat hartuko lituzketenak. Ez ordea gureek.

Argi geratu dena baina, gobernuaren ahulezia eta bere ekimenak aurrera ateratzeko ezgaitasuna izan da.

Gu Zumaiaren aurrerapenaren alde prest gaude; prest gauzak aurrera eramaten laguntzeko. Baina geurea izan dugun jokabidearekin koherentzia gordez eta herriari etorkizuna bideratuko dion politika zentzuzkoa aplikatuz.



Iehenengo aldiz legealdi honetan, Zumaiako Udala aurrekonturik gabe geratuko da, Udal Gobernuak egindako proposamenak kontrako boto gehiago jaso dituelako aldekoak baino, nahiz eta aurrekontuak aurreko urteetako alderdi politiko berberak babestu. 2007ko hauteskundeetan, zumaiarrek Udalean oreka politiko berria sortu zuten eta orain desorekatu egin da, bere burua ordezkatzeko duen pertsona batek hala nahi duelako. Hauteskundeetan, Zumaiako herriak aukera eman zion gehiengo berriari Udaletxeari beste norabide bat emateko, baina aurtengoan ezingo da egin aurrerapausorik.

Gure ustez, bazegoen nahikoa arrazoi aurrekontu hauek onartzeko. Besteak beste, 2010eko aurrekontuak berriz ere herritarrekin landu genituelako; Alondegiko lanak behar bezala bukatzeko; Jadarrek behar dituen lanak 2010ean egiteko; Narrondaranzko pasabideko lanak aurten hasteko; Moilaberriko zubiaren inguruan inbertsio garrantzitsuak egiteko; Moilaberriko estazioa erosteko; adineko jendearentzat kaleko gimnasio bat gauzatzeko; Artadik behar dituen azpiegiturak egiteko; eta frontoia 2010. urtean gauzatzen hasteko. Baina gertatu da aurreko urteetan aurrekontuak babestu izan dituen zinegotzi batek, Pilar Etxabek, aurten kontra bozkatu duela, PNV eta PSOEekin bat. Hilabete eta erdian, Ogasun batzordean aurrekontuak landu bitartean, horiek guztiek ez dute emendakinik edo proposamenik egin, eta beraien ezezko hitza plenorako utzi zuten.

Aurrekontuak ateratzeko, hainbat bilera egin ditugu, negoziatzeko, baina Pilar Etxabek baldintza bakarra jarri zuen aurrekontuak onartzeko: Udal Gobernuak berari barkamena publikoki eskatzea bere kontra esandako hitzengatik. Aurrekontuen kontra ez zuen ezer esaten, ez zuen aparteko ezer ere eskatzen. Bere jokabidearekin, are garbiago geratu da zinegotzi honen izaera eta arduragabekeria. Zinegotzi honek bere burua jartzen du Zumaiaren eta zumaiarren gainetik; bere burua Jadarren gainetik, Narrondoren gainetik, guztiaren gainetik, eta bere arduragabekeria politikoa noraino iritsi daitekeen irudikatu du.

Aurten ez ditugu onartuko berez Ezker Abertzaleak nahiko lituzkeen aurrekontuak, baina bilatuko eta aurkituko ditugu bideak gure asmo eta proiektu guztiak gauzatzeko.



ezdira aurrekontuak onartuak izan. Aurrekontuak aurkeztuak izan zirenetik (urtarrila) eta plenora eraman bitartean, hainbat ogasun batzorde egin dira. Batzorde horietatik Aralar-Alternatibaren iruzkin edo emendakinak jasotzeko aukera bakarrik izan dugu. Eta gainontzekoak? Ezer ez. Galderak hemendik, galderak handik, baina proposamenik ez.

Horren aurrean eta batzordeetatik aparte, aurrekontuaz hitz egiteko bilerara deitu genien. Banaka izandako bilerak izan ziren.

EAJ-PNV: Ez zutela batzordeetan ezer aurkeztu eta ea zer intentzio zituzten galdetu genien. Era berean, zeuden aurrekontuetatik zer aldatuko luketen eta negoziatzeko prest ote zeuden galdetu genien. Jasotako erantzuna zera izan zen: beraiek aurrekontu guztiko filosofiaren kontra daudela eta ez zirela sartuko emendakinak egin edota ezer negoziatzera. Beraz, EAJ-k atek parez pare itxi zizkigun.

PSE-PSOE: Batzordeetan emendakinak aurkeztu ez eta horren aurrean zer jarrera izango luketen jakitea zela gure helburua. Era berean, Aralar-Alternatibarekin adostasun batera iritsi ginela adierazi genien eta uste genuela legitimatuak geundela aurrekontuak onartzeko adierazi genien. Beraien aldetik ez zutela ezer negoziatzeko adierazi ziguten eta zinegotzia *transfuga* zenaren inguruko beren zalantzak adierazi zizkiguten. Egun gutxi beranduago, Sestaoko alkate sozialistak zinegotzi *transfuga* batzuk azaldu zirela udal horretan salatu zuen publikoki.

Pilar Etxabe: Alderdi baten eta programa jakin bat bultzatzeko aukeratua izan zela gogoratu genion. Aurrekontuak onartzeko bideak zabaldu zituztela eskatu genion eta erantzukizunez jokatzeko. Bere erantzuna txundigarria izan zen. Berak aurrekontuak onartzea nahi bagenuen, lehendabizi barkamenak eskatu behar omen genizkion, publikoki eta "a cuatro columnas".

Dagoeneko jarrera batzuk ez gaituzte harritzen. Baina zenbaitzuen jarrera publikoki gogoraztea ez da gaizki etortzen, bakoitzak jokatzeko duen papera garbi geratu dadin. Garai batean erantzukizunez jokatzeko eskatzen zuten haiek, herriaren onerako zela argudiatuz, argumentu haien funtsa non zegoen agerian geratzen da gaur. Bakoitza bere jokamoldearen erantzule izan dadila.



martxoaren 12an ospatu genuen osoko bilkuran 2010. urterako aurrekontuak onartu gabe geratu ziren lehen aldiz legealdi honetan. Izan ere, udal gobernua aurkeztu zuen aurrekontuen proiektuak gobernu osatzen duten lau zinegotzi eta Aralar-Alternatibako bi zinegotzien botoak soilik lortu zituen. Gure koalizioetik esan nahi dugu gure aldeko botoa gobernuarekin mantendu genituen negoziazioen ondorioa izan zela, negoziazio honi esker gure emendakin guztiak onartu zirelarik. Beste behin ere esan nahi dugu gu beti prest egongo garela Zumaiarentzat gure ustez positiboak diren gaiak udal gobernuarekin hitz egin eta negoziatzeko. Alderdikeriak eta ezinikusiak alde batera utziz Zumaiarentzat mesedegarri diren gaiak aurrera ateratzeko prest gaude, eta ez gainontzeko alderdiek egin duten bezala herria aurrekonturik gabe utzi aurkeztutako aurrekontuei inolako emendakin edo alternatibarik aurkeztu gabe.

Bukatzeo jakinarazi nahi dugu azken pleno honetan orain arte gure koalizioko zinegotzia izan den Xabier Olaizolak, lan arazoak direla eta, bere zinegotzi postuari uko egin ziola.

En el pleno celebrado el 12 de Marzo no fueron aprobados los presupuestos municipales para el año 2.010 por primera vez en esta legislatura, puesto que el proyecto de presupuestos presentado por el gobierno municipal solo contó con los apoyos de los cuatro concejales del propio gobierno y los dos de la coalición que componemos Aralar y Alternatiba. Desde nuestra coalición queremos decir que nuestro voto a favor de estos presupuestos es resultado de una negociación que mantuvimos con el gobierno municipal en la cual conseguimos que se aceptaran todas nuestras enmiendas a los presupuestos. Desde Aralar-Alternatiba siempre hemos estado y estaremos dispuestos a hablar y negociar con el gobierno municipal cualquier punto que a nuestro entender sea positivo para Zumaia, sin partidismos ni rencores personales, y no hacer como han hecho el resto de los partidos, votar en contra de los presupuestos sin presentar ninguna enmienda o alternativa al proyecto presentado por el gobierno.

Por último queremos hacer saber que en este mismo pleno se dio a conocer la renuncia al cargo de concejal por motivos laborales presentado por el hasta ahora concejal de nuestra coalición Xabier Olaizola.



en el último consejo de administración de Zumaia Lantzen, puso en marcha de forma definitiva las obras para concluir como estaba previsto en junio de 2011 de las viviendas de Odieta, aunque los garajes de las mismas no se podrán hacer uso mientras no se realice la obra de la plaza Gurrutxaga, porque será a través de esta el acceso a la de las viviendas ¡por fin! Polémico pero clarificador pleno extraordinario (sobre presupuestos del 13/03), que contenía un punto sobre acuerdo económico entre el grupo de gobierno y los funcionarios y trabajadores del mismo, pleno que seguramente dará mucho que hablar, por lo que aquí trataremos 2 temas principalmente.

A) Contenido presupuestario: era este el tercer presupuesto que presentaban incidiendo en la misma política económica, que no hace otra cosa que provocar a medio y largo plazo el endeudamiento municipal sin que exista para ello unas inversiones de futuro, salvo la conversión de la Alondiga en centro cultural, eso sí muchos estudios y propuestas de proyectos como el referente al Convento, sin posibilidad de ejecutar en este mandato y probablemente en el nuevo mandato de 2011, dado que a partir de ese año se comenzará a devolver el dinero entregado de más por la Diputación durante 2011, 2012 y 2013 con la consiguiente merma económica para cubrir gastos, y en cambio la propuesta de presupuestos cifraba un endeudamiento para 2010 de más de 2,700.000 euros con los consiguientes intereses bancarios, que por otra parte ya estamos pagando cantidades importantes en intereses por Zumaia Lantzen, y un aumento en los 3 años de mandato del gasto corriente de más del 50% cuando todas las instituciones lo han reducido en más de un 10% en beneficio de la inversión creadora de empleo con lo que supone más del 60% del presupuesto.

B) El acuerdo trabajadores realizado de forma irregular puesto que se viene abonando a cuenta desde enero de 2008, 2 años esperando un estudio sobre regulación y organización a aplicar en el actual esquema funcional del ayuntamiento, acuerdo este que por respeto a los trabajadores y no a la comisión de Gobierno por su torpe planteamiento, se aprobó en el pleno y que habrá que ver como puede hacerse realidad el mismo para lo que apoyaremos las medidas oportunas.

Por otra parte proyectos como la 2ª fase de Jadarre, o el peatonal de Narrondo no aparecían en el presupuesto como obras del 2010.

Martxoaren 12ko plenoa

1- Hirigintza: I bien udal ordenantzaren aldaketa onartu zen aldeko 11 botorekin (EAJ 4, Talde Mistoa 3, EA 1, Aralar-Alternatiba 2 eta Pilar Etxabe 1). Zinegotzi bat abstenitu egin zen (PSE-EE 1).

2- Pertsonala: Aldeko sei botorekin onartu egin zen Giza Baliabideen arrazoizko erabileraren antolakuntzarako programa (Talde Mistoa 3, EA 1, Aralar-Alternatiba 2). Besteek abstentzioa bozkatu zuten (EAJ 4, PSE-EE 2, Pilar Etxabe 1).

3- Ogasuna: 2010 ekitaldirako aurrekontu orokorrak ez ziren ontzat eman. Seik alde bozkatu zuten (Talde Mistoa 3, EA 1, Aralar-Alternatiba 2), eta zazpi aurka (EAJ 4, PSE-EE 2, Pilar Etxabe 1).

Resolución del pleno celebrado el 12 de marzo

1- Urbanismo: Se procedió a la aprobación inicial de la propuesta de modificación de la ordenanza municipal de vados. 11 votos a favor (PNV 4, Grupo Mixto 3, EA 1, Aralar-Alternatiba 2 y Pilar Etxabe 1). Un concejal se abstuvo (PSE-EE 1).

2- Personal: Se aprobó con seis votos a favor el programa de racionalización de recursos humanos (Grupo Mixto 3, EA 1, Aralar-Alternatiba 2). Siete se abstuvieron (PNV 4, PSE-EE 2, Pilar Etxabe 1).

3- Hacienda: El pleno no aprobó los presupuestos generales para el 2010. Seis votaron a favor (Grupo Mixto 3, EA 1, Aralar-Alternatiba 2), y siete en contra (PNV 4, PSE-EE 2, Pilar Etxabe 1).

agenda

apirila abril / maiatza mayo



Deialdiak / Convocatorias:

- ZUMAIAKO ARGAZKI LEHIAKETA. Zuri-beltzean. Gaia: "HIRIKOA". Lanak aurkezteko epea, ekainaren 23a. Informazioa kultur etxean (943861056 / foronda@zumaia.net) / *Concurso Fotográfico de Zumaia. Tema: 'Urbano'*.
- UDALEKU MUSIKALAK: Uztailaren 19tik 30era. Informazio orriak kultur etxean apirilaren 20tik aurrera. / *Colonias musicales: del 19 al 30 de julio*.
- EUSKALDUNAN BALET JAIALDIA: Maiatzaren 29an, 20:00etan. Sarrerak salgai Foronda kultur etxean maiatzaren 4tik aurrera. / *Festival de Ballet: el 29 de mayo*.
- TURISMO IRTEERAK: informazioa 943143396. / *Visitas guiadas desde Turismo*.
- ASTE BERDEKO ARGAZKI RALLYA: maiatzaren 29an, 08:00etatik 15:00etara. / *Rally fotográfico de la Semana Verde: el 29 de mayo*.

- APIRILAK 2, 17. MAIATZAK 8, 22
Flyscharen ibilbidea, ibilbide osoa / *La Ruta del flysch*.
- APIRILAK 2
Zuloaga museoa eta Zumaia / *Visita al museo Zuloaga*.
- APIRILAK 3
Zetazeoak ikusteko irtenaldia itsasoz / *Avistamiento de cetáceos*.
- APIRILAK 3, 10, 17, 24. maiatzak 1, 8, 15, 22
Irteera geologikoa eta txalupa / *Salida geológica y barco*.
- APIRILAK 4, 18. MAIATZAK 9, 23, 29
Flyscharen Trekkinga / *Trekking del Flysch*.
- APIRILAK 2, 4, 11, 18, 25. MAIATZAK 2, 9, 16, 23, 30
Zumaia-Deba-Zumaia txalupaz ibilbidea / *Paseo en barco*.
- MAIATZAK 1
Zetazeoak ikusteko irtenaldia itsasoz / *Avistamiento de cetáceos*.
- MAIATZAK 1, 15, 29.
Urolako itsasadarra Kayakean / *Kayak por el río Urola*.

Apirila / Abril

Osteguna, 8 Jueves

22.15ean Aita marin, zine foruma: BUSCANDO A ERIC / *Cine forum*
Apirilaren 9tik 18ra, SAN TELMO JAIK / *Santelmos*

Ostirala, 16 Viernes

20:00etan Aita Marin, Zumaia ITZURUNGO UHINAK taldearen esku, antzezlan 'Zer diyon?'. / *Obra teatral 'Zer diyon?'*

Larunbata, 17 Sábado

22.15ean Aita marin, zine foruma: Un tipo serio / *Cine forum*

Osteguna, 22 Jueves

15:00etan eta 17:00etan Pirritx eta Porrotxen Inauteritako saioa / *Actuación de los payasos Pirritx eta Porrotx*.

Ostirala, 23 Viernes

22:00etan Aita Marin, antzerkia: GLU GLU Taldearen Kanpaia jotzen / *Obra teatral Kanpaia jotzen*.

Larunbata, 24 Sábado

Zumaia XXVI. Herri Lasterketa. Helduak 17:00etan eta haurrak 16:00etan / *XXVI. Cross Popular de Zumaia*.

24 eta 25ean

19:30ean eta 22:15etan Aita Marin, zinema saio berezia, 'Mugalariak' / *Sesión de cine, 'Mugalariak'*.

Igandea, 25 Domingo

Egun osoan, Saxo Topaketa / *Durante todo el día, actuaciones de saxo*.

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia: Gorakadaren 'Cyranok' / *Teatro infantil*.

Ostirala, 30 Viernes

22:00etan Aita Marin, Kontzertua: GARI-16 LORE / *Concierto de Gari*.

Maiatza / Mayo

1 eta 2an

1 eta 2: Zumaia I. Metal Topaketak / *I. Encuentro de Instrumentos de Metal de Zumaia*.

Osteguna, 6 Jueves

22.15ean Aita marin, zine forum: Adventureland / *Cine forum*

Ostirala, 7 Viernes

19:00etan Forondan, hitzaldia Geometriaren inguruan / *Charla sobre la Geometría*.

Larunbata, 8 Sábado

19:00etan Aita Marin 'Zumaian ere maiatza dantzan'.

Ostirala, 14 Viernes

19:00etan Maria eta Jose aretoan, Udal Musika Bandaren Kontzertu didaktikoa / *Concierto Didáctico de la Banda de Música*.

Larunbata, 15 Sábado

19:00etan Maria eta Jose aretoan, Udal Musika Bandaren Kontzertu didaktikoa / *Concierto Didáctico de la Banda de Música*.

Osteguna, 20 Jueves

9:30ean Aita Marin, hitzaldia El cuidado de los huesos y las articulaciones a través de la alimentación / *Charla*.

22.15ean Aita marin, zine forum: Garbo, el espía / *Cine forum*.

Ostirala, 21 Viernes

19:00etan komentuan, ZIIZ taldearen hitzaldia Zumaia Industria Ondareaz / *Charla sobre el patrimonio industrial de Zumaia*.

Ostirala, 28 Viernes

10:00etan Aita Marin, haur antzerkia eskolentzat DAR DAR

taldearen 'Eta zer?' / *Teatro infantil: 'Eta zer?'*

28tik 30era Estazioko jaiak /

Fiestas en el barrio de la Estación.

Igandea, 30 Domingo

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia DAR DAR

taldearen 'Eta zer?' /

Teatro infantil: 'Eta zer?'